

Urrikalgarriak, Bigarren zatia, 3. liburukia, 4. atala, "Panpina bat ageri da jokalekuan».

“Elizatik hasten zen ageri zabaleko denden errenkada, gogoan edukiko duzue, Thénardier-en ostaturaino luzatzen zen. Dendok, gauerdiko mezara zihoazen burgesak ondotik pasatzen zirenez, paperezko bilduetan sututako kandelek argituak zeuden denak, eta honek, Thenardier-erenean mahaiko zen Montfermeil-eko eskola maisuak zioen gisan, "magiazko zera bat" sortzen zuen. Alabaina, ez zen izarririk ageri zeruan.

Barraka hauetarik azkena Thénardiartarren ate aitzinean zegoen hain zuzen, sasi-urrez, zintzilikarioz eta burdinorritz eginiko gauza ikaragarrietan distiratsu. Lehen lerroan, eta aurrenik, zapi zurien gainean, panpina erraldoi bat zeukan paratua merkatariak, oin bi bai luze, buruan urrezko galburuak zituen gasa arrosa batez jantzia, eta zinezko ileak eta esmailezko begiak zeuzkana. Egun osoan, miragarritzko panpina hau hamar urtetik beheitikoen liluramendurako zuten edukia ikusgai, baina Montfermeil-en ez zegoen aski diru zeukan edo nahikoa eskuzabala zen amarik, bere haurrari emateko. Eponinak eta Azelmak orduak eman zituzten hari beha, eta Cosette-k berak ere, gordeka, egia da, begiz jo izan zuen.

Cosette jalgi zenean pegarra eskuan, tristerik eta apaldurik bazegoen ere, ezin izan zuen ekidin begiak panpina miragarri harengana jasotzea, damarengana, berak esaten zuen gisan. Haur gaixoa harri eta zur gelditu zen. Ez zuen panpina hau hurbildik ikusi. Denda osoa iruditzen zitzaion jauregi bat; panpina hau ez zen panpina bat, ikustate bat zen. Ezeria hotz eta hilgarriak irentsia zeukan zorigaitzoko izaki ttipi honi bozkarioa, izarniadura, aberastasuna, zoriona ziren agertzen zitzaizkionak kimerazko distira antzeko batean. Cosettek haurtzaroko bizkortasun inozo eta triste horrekin neurtzen zuen panpina horrengandik bereizten zuen amildegia. Bere artean erregina edo gutieneko printzesa izan beharra zen halako "gauza" bat edukitzearren. Kontuan hartzen zituen soineko arrosa, ile eder leunak, eta gogoeta egiten: Zeinen zorionekoa izan behar duen panpina horrek! Ezin zituen begiak aldendu denda zoragarri hartarik. Zenbatenaz luzeago behatu, hainbatenaz zorutzenago zen. Paradisua ikusi uste zuen. Bazeuden beste panpina batzuk handiaren gibelean, laminak eta iratxoak iruditzen zitzaizkionak. Dendaren hondoan harat-honat zebilen merkataria, berriz, Aita eternala ote zen.


Miresmen honetan dena zuen gogotik galtzen, baita egin behar zuen mandatua ere. Tanpez, Thenardier-en ahots lakarrak errealitatera ekarri zuen:

—Zer ari zara, mariberritsu, oraindik hor! Zaude, banoa horra! Zer egiten ote du horrek hor! Alde hortik, munstrotxo horrek!

Thenardier andrea so egina zen karrikara eta Cosette liluramendu batean ikusi. Cosettek hanka egin zuen pegarra hartuta ahal zituen urrats handienak emanaz.”

Kapitulu hau 1847ko uztailaren 5a baino zertxobait beranduago idatzia izan zen. Cosette txikia Thénardiartarren etxean utzi zuen bere amak, hauek Montfermeil-en, Paris inguruan, zuten etxean. Cosette familiako oinazea da. Kuboa urez betetzera bidali dute ondoko iturri txiki batera, basora. Gabon Zahar gaua da.

1860 Victor Hugo, E. Bacotek egina. BNF©Coll. Violet.



1860